# 5.

## FAMILIA-MOTAK: FAMILIA BERRIAK
TIPOS FAMILIARES: LAS NUEVAS FAMILIAS

## 5.1 Las familias y su evolución en el territorio

Probablemente si preguntásemos a varias personas diferentes cuál es su familia, de sus respuestas obtendríamos casi el mismo número de definiciones de familia, relacionadas con su esfera de relaciones familiares. El grado de parentesco, si es político o de sangre, la adopción, la residencia común y si no es común las distancias, el trato personal, las costumbres y tradiciones del lugar, el nivel cultural, la legislación, las relaciones laborales, son todas variables que intervienen en la concepción que tienen las personas de lo que es su familia y que los expertos en ciencias sociales manejan de cara a definir modelos familiares para a través de ellos estudiar este grupo básico.

La estadística oficial, sobre todo cuando empleando metodología censal trata de recoger informaciones familiares, no tiene más remedio que adoptar definiciones de familia o de hogar, limitadas a las posibilidades operativas de esa recogida. Desde esta perspectiva la familia o el hogar tiene sus límites en los de la propia residencia o vivienda, ya que suele ser la unidad de recogida. Dos excepciones desde el punto de vista censal contravienen esta metodología; por un lado, los países que tienen en marcha registros de población, en la medida que suelen tener perfectamente identificadas a las personas, podrían -no sin cierta complicación técnica- reconstruir unidades familiares sin el límite de la vivienda. Por otra parte, en algunos censos de países afectados fuertemente por fenómenos migratorios -ya por enviar, ya por recibir migrantes-, con lo que supone de rupturas espaciales de familias, se ha recogido información del resto de la familia, independientemente de donde residiera. El estudio de los movimientos de reagrupación familiar, así como la programación de servicios sociales o de otra índole, han demandado este tipo de análisis familiar.

Tres son los conceptos que habitualmente se manejan para clasificar a las personas dentro de una vivienda: hogar, familia y núcleo familiar. Con pequeños matices, a veces terminológicos, se vienen definiendo y utilizando

## 5.1 Familiak eta familien bilakaera lurraldean

Ziurrenik, jende askori galdetuko bagenio zein den bere familia, haien erantzunetatik, familiari buruzko beste hainbat definizio lortuko genuke, bakoitza norberaren familia-lokarrien esparruarekin lotuta. Norberak bere familia zer den zehazteko, hainbat aldagai hartzen ditu kontuan: ahaidetasun-maila nolako den; ahaidetasun hori politikoa edo odolekoa den; seme-alaba adoptaturik badagoen; elkarrekin bizi diren (eta elkarrekin bizi ez badira, zein urrun dauden elkarrengandik); toki bakoitzean nolako harremanak, ohiturak eta tradizioak dituzten; norberaren kultura-maila; nolako legeak eta lan-harremanak dauden, etab. Horiek guztiak erabiltzen dituzte gizarte-zientzietako adituek, familia-ereduak zehazteko, eta horien bidez, oinarrizko talde hori aztertzeko.

Estatistika ofizialak –batez ere, zentsuko metodologia erabiliz familiei buruzko informazioa bildu nahi duenean–, familiari edo etxeguneari buruzko definizioak zehaztu behar ditu ezinbestez, bilketa horren aukera eraginkorrei mugatuak. Ikuspegi horretatik, familiak edo etxeguneak etxebizitza batera mugatzen dira, hori izaten baita bilketa-unitatea. Zentsuari dagokionez, bi salbuespenek hausten dute metodologia hori. Alde batetik, biztanleri erregistroak abian dituzten herrialdeek, kontuan izanik biztanleak erabat identifikaturik edukitzen dituztela, familia-unitateak berreraiki ditzakete –zailtasun tekniko batzuk gorabehera– etxebizitzaren mugarik gabe. Bestalde, migrazio-mugimenduek eragin handia duten herrialdeen zentsu batzuetan –migratzaileak bidaltzeagatik edo jasotzeagatik–, familiako beste kideei buruzko informazioa biltzen da, kide horiek non bizi diren alde batera utzita. Familien berrosatze-mugimenduak aztertu beharrak eskatu du horrelako famili azterketak egitea, bai eta gizarte arloko edo bestea arlo batzuetako zerbitzuak antolatu beharrak ere.

Biztanleak etxebizitza batean barruan sailkatzeko, hiru kontzeptu erabili ohi dira: etxegunea, familia eta familiagunea. Ñabardura txiki batzuk gorabehera –batzuetan terminologi arloak–, modu homogeneo batean definitzen

en la comunidad estadística de una manera homogénea. No obstante indicaremos cual son las definiciones utilizadas por Eustat.

Entendemos por hogar al conjunto de personas que ocupan o residen en una vivienda principal –existe al menos una persona empadronada en esa vivienda–, independientemente del parentesco entre ellos.

A una familia pertenece aquel grupo de personas, vinculadas generalmente por lazos de parentesco, ya sean de sangre o políticos, que independientemente de su grado, hace vida en común, ocupando normalmente la totalidad de una vivienda. Se incluye en la familia las personas del servicio doméstico que pernoctan en la vivienda y los huéspedes. En la definición incluimos las personas que viven solas en régimen familiar.

Por parentesco entendemos cualquier relación basada en algún vínculo de filiación o conyugalidad. La filiación puede ser biológica, por adopción, o adquirida por la relación conyugal o de pareja con uno de los padres naturales o adoptivos.

En la Estadística de Población y Vivienda 1996 la conyugalidad se define a través de las situaciones de hecho, por lo tanto resulta independiente de la situación legal, y sólo queda sujeta a dos circunstancias: la declaración de esa situación al calificar a otra persona de cónyuge o pareja y la convivencia en la misma vivienda.

Definimos el núcleo familiar como el conjunto de personas dentro de una familia con una relación de padres e hijos; de esta forma nos aproximamos a la concepción moderna, limitada a los lazos de parentesco más estrechos. Los núcleos, a su vez, pueden clasificarse según su origen, por lo que tendremos núcleos originales, rotos o reconstituidos. En el siguiente apartado concretaremos esas definiciones.

Hechas estas precisiones, diremos que en la fecha de recogida censal de 1996, en la Comunidad Autónoma de Euskadi se contabilizaron 683.000 familias, 51.200 más que cinco años antes y 105.000 más que hace quince años. Estas cifras nos indican que en el quinquenio pasado se ha duplicado el ritmo de formación de familias.

Si tenemos en cuenta que el Padrón Municipal de Habitantes de 1986 arrojó una cifra aproximada de 605.000 familias, en el decenio 1981-1991, se crearon una media de 5.000 familias al año, mientras que esa cifra pasa a ser de 10.000 entre 1991 y 1996. Sin detenerse en esta evolución resulta menos explicable el crecimiento urbanístico de los últimos años.

En las ciudades de 20.000 habitantes o más de la C.A. de Euskadi, podemos comprobar, por un lado, que la evolución de la población está asociada al número de familias

eta erabiltzen dira estatistika-erkidegoan hiruak. Nolanahi ere, azalduko dugu zein diren Eustatek erabiltzen dituen definizioak.

Etxegunetzat, etxebizitza nagusi bat okupatzen edo bertan bizi den biztanle-taldea ulertzen dugu –etxebizitza horretan erroldatuta dagoen biztanle bat dago gutxienez–, haien arteko ahaidetasuna alde batera utzita.

Familia bateko kide da, bestalde, elkarrekin bizi den biztanle-taldea, ahaidetasun-lokarriz lotuta egon ohi dena, –bai odolekoak bai politikoak–, haien maila alde batera utzita, eta normalean etxebizitza oso bat okupatzen duena. Familian, etxebizitzan lo egiten duten etxeko zerbitzuko langileak eta arrotzak ere sartzen dira. Definizioan, famili erregimenean bakarrik bizi diren biztanleak ere sartzen ditugu.

Ahaidetasuntzat, berriz, seme-alabatasuneko edo ezkontidetasuneko loturaren batean oinarritutako edozein harreman ulertzen dugu. Seme-alabatasuna biologikoa, adopziozkoa edo guraso natural edo adoptibo batekiko ezkontide- edo bizikide-harremanagatik hartua izan daiteke.

1996ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikan, ezkontidetasuna egitezko egoeraren bidez definitzen da; hori dela eta, ez du zerikusirik legezko egoerarekin, eta bakarrik bi baldintzei lotuta geratzen da: egoera hori aitortzearekin, beste norbait ezkontidetzat edo bizikidetzat sailkatzean, eta etxebizitza berean elkarrekin bizitzearekin.

Familiagunea honela definituko dugu: familia bateko biztanle-taldea, guraso- edo seme-alaba harremana duena; horrela, definizio modernoenera hurbilduko gara, zeina ahaidetasun-lokarri estuenetara mugatzen baita. Guneak, berriz, jatorriaren arabera sailka daitezke, hori dela eta, gune jatorrizkoak, hautsiak edo berrosatuak izango ditugu. Definizio horiek hurrengo atalean zehaztuko ditugu.

Zehaztapen horiek egin ondoren, honako hau esango dugu: zentsuaren bilketako datan (1996), 683.000 familia zenbatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, bost urte lehenago baino 51.200 gehiago, eta hamabost urte lehenago baino 105.000 gehiago. Zenbaki horiek adierazten digute ezen aurreko bosturtekoan bikoiztu egin dela familiak osatzeko erritmoa.

1986ko Udal Biztanleen Erroldak 605.000 familia inguru zenbatu zituen; hori kontuan izanik, 1981-1991 hamarkadan, batez beste, urtean 5.000 familia sortu ziren; 1991 eta 1996 artean, kopuru hori 10.000ra igoko da. Bilakaera hori ez bada kontuan hartzen, nekezago azaltzen da azken urteotako hazkunde urbanistikoa.

Euskal AEko 20.000 biztanle edo gehiagoko hirietan, ikus dezakegu ezen, alde batetik, biztanleriaren bilakaera familia-kopuruari lotuta dagoela –jakina denez–, baina bila-

–obviamente– pero que no tiene por qué tener el mismo signo ni la misma variación porcentual; así Bilbao, que pierde un 3% de población en los últimos cinco años (11.000 personas), gana un 4,6% de familias (5.434).

kaera horrek ez du zertan zeinu berdina edo ehuneko aldakuntza berdina izan behar. Esaterako, Bilbok biztanleriaren % 3 galdu du azken bost urteetan (11.0000 biztanle), baina familien % 4,6 irabazi du (5.434).

5.1.1 BEE E.P.V. 1996 NU

**FAMILIA-KOPURUAREN BILAKAERA 20.000 BIZTANLE EDO GEHIAGOKO UDALERRIETAN. 1991-1996.**

EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE FAMILIAS EN LOS MUNICIPIOS DE 20.000 HABITANTES O MAS. 1991-1996.

| | 1991 | 1996 | 1996-91 | %96-91 |
|---|---|---|---|---|
| **Euskal AE /** C.A. de Euskadi | **632.075** | **683.286** | **51.211** | **8,1** |
| Bilbao | 117.022 | 122.456 | 5.434 | 4,6 |
| Vitoria-Gasteiz | 62.071 | 70.302 | 8.231 | 13,3 |
| Donostia-San Sebastián | 54.142 | 60.793 | 6.651 | 12,3 |
| Barakaldo | 32.656 | 33.687 | 1.031 | 3,2 |
| Getxo | 23.098 | 24.984 | 1.886 | 8,2 |
| Irun | 16.373 | 18.382 | 2.009 | 12,3 |
| Portugalete | 16.610 | 17.401 | 791 | 4,8 |
| Santurtzi | 15.066 | 16.091 | 1.025 | 6,8 |
| Basauri | 14.664 | 15.571 | 907 | 6,2 |
| Errenteria | 12.347 | 12.950 | 603 | 4,9 |
| Sestao | 11.253 | 11.679 | 426 | 3,8 |
| Eibar | 9.906 | 10.073 | 167 | 1,7 |
| Galdakao | 8.424 | 9.374 | 950 | 11,3 |
| Leioa | 7.139 | 8.117 | 978 | 13,7 |
| Arrasate o Mondragón | 7.047 | 7.435 | 388 | 5,5 |
| Durango | 6.544 | 7.606 | 1.062 | 16,2 |
| Erandio | 7.380 | 7.440 | 60 | 0,8 |

Por otro lado, podemos establecer tres grandes grupos de evolución: los municipios que tienen un crecimiento mínimo: Erandio, Eibar, Barakaldo, Sestao, Bilbao, Portugalete y Rentería. Todos ellos pierden población entre un 3 y un 6%. Los que tienen un crecimiento moderado (aunque por debajo de la media): Arrasate-Mondragón, Basauri, Santurtzi. Arrasate y Basauri se aproximan al 4% de perdida poblacional, Santurtzi al 1% . El grupo restante lo formarían los municipios con crecimientos por encima de la media: Getxo con una décima más, Irún, Galdakao, Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz y Leioa crecen en torno a un 13%, mientras que Durango se dispara con un 16,2%. Salvo Durango y Leioa que se aproximan al 6% de crecimiento poblacional, el resto crecen a un ritmo de un 4%.

Con estas cifras queremos poner de manifiesto, además de la propia evolución, la limitación de establecer criterios o baremos en base solamente de intervalos de stocks poblaciones, por otra parte un hábito reciente, ya que hasta la llegada de los censos modernos se venían contabilizando y/o utilizando unidades familiares. Muchos de los servicios que un ayuntamiento presta lógicamente están relacionados con las viviendas, o sea con las familias, por lo que puede ser contraproducente el medir su peso a través de los individuos. Así tenemos que municipios como Basauri, Llodio o Rentería han perdido status administrativo por sus disminuciones poblacionales, y sin embargo ha crecido su número de familias en un 5% o más.

Bestalde, hiru bilakaera-talde nagusi ezar ditzakegu: hazkunde txikia duten udalerriak: Erandio, Eibar, Barakaldo, Sestao, Bilbao, Portugalete eta Errenteria. Horiek guztiek biztanleria galdu dute, % 3 eta 6 artean. Hazkunde neurritsua dutenak (baina batez bestekoaren azpitikoa): Arrasate, Basauri, Santurtzi eta Basauri biztanle-galeraren % 4ra hurbiltzen dira, eta Santurtzi % 1era. Beste taldea batez bestekoaren gainetiko hazkundeak dituzten udalerriek osatuko dute: Getxo (hamarren bat gehiago), Irun, Galdakao, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Leioa % 13 inguru hazi dira; Durango, berriz, askoz gehiago hazi da (% 16,2). Durango eta Leioa izan ezik (zeinak biztanleri hazkundearen % 6ra hurbiltzen baitira), besteak % 4ko erritmoaz hazi dira.

Zenbaki horien bidez, agerian utzi nahi dugu –bilakaera beraz gain– nolako mugak dituen biztanleri stock-en tarteetan soilik oinarritutako irizpideak edo baremoak ezartzeak. Ohitura hori, gainera, ohitura modernoa da, zeren, zentsu modernoak iritsi ziren arte, familia-unitateak zenbatzen edo erabiltzen baitziren. Udal batek eskaintzen dituen zerbitzuetako asko, logikoa denez, etxebizitzarekin –hau da, familiekin– lotuta egoten dira; hori dela eta, kaltegarria izan daiteke horien pisua gizabanakoen bidez neurtzea. Horrela, zenbait udalerrik (hala nola Basauri, Laudio edo Errenteriak) administrazio-statusa galdu dute, eta, hala ere, udalerri horietako familia-kopurua % 5 edo gehiago hazi da.

Evolución del número de familias por municipio
1991-1996. %

Mapa **5.1.1 Mapa**

**Familia-kopuruaren bilakaera udalerrika**
**1991-1996. %**




Si nos detenemos en el mapa municipal, podemos ver repetido, aunque con otros matices, la evolución de la población que vimos en los primeros capítulos. Los municipios contiguos a las capitales ven aumentar significativamente la cifra de sus familias. La Llanada Alavesa, la parte central de la Cantábrica Alavesa y Valles Alaveses, acompañan el crecimiento de Vitoria-Gasteiz. En torno a Bilbao crecen varios municipios de la comarca Plentzia-Mungía e incluso del Duranguesado. Donostia-San Sebastián ve como aumentan Hernani, Oiartzun o Urnieta, municipios de su comarca y también los costeros de Urola Costa u Hondarribia e Irún.

Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa y en parte la Rioja Alavesa aparecen como las comarcas con menor crecimiento en el número de familias.

## 5.2 Tipos familiares, tamaño y su evolución

Trataremos de precisar y explicar los cambios, sobre todo de los últimos 5 años, analizando la evolución de los tipos de familias y las llamadas tasas de jefatura.

No podemos olvidar, a la hora de analizar las distribuciones de tipos familiares en varios momentos censales, que no dejan de ser fotografías que esconden toda una dinámica de movimientos familiares, que con la metodología y herramientas actuales, al menos desde el punto

Udalerrien mapa aztertzen badugu, berriro ikusiko dugu –beste ñabardura batzuekin bada ere– lehen kapituluetan ikusi genuen biztanleriaren bilakaera. Hiriburuen inguruetan dauden udalerrietan nabarmen igo da familia-kopurua. Arabako Lautadak, Kantauri Arabarreko erdialdeak eta Arabako Ibarrek Vitoria-Gasteizko hazkundeari jarraitu diote. Bilbao inguruan, Plentzia-Mungiako eta are Durangaldeko zenbait udalerri hazi da. Donostia inguruan, berriz, Hernani, Oiartzun, Urnieta eta Donostialdeko udalerriak hazi dira, bai eta Urola-Kostaldekoak edo Hondarribia eta Irun ere.

Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa –bai eta neurri batean Errioxa Arabarra ere– hazkunde txikieneko eskualde gisa agertu dira, familia-kopuruari dagokionez.

## 5.2 Familia-motak, tamaina eta familien bilakaera

Aldaketak zehazten eta azaltzen saiatuko gara, batez ere azken bost urteotakoak, eta horretarako familia-motak eta buruzagitza-tasa direlakoak aztertuko ditugu.

Familia-motek zentsu-aldi bakoitzean nolako banaketa duen aztertzerakoan, ezin dugu ahaztu unean-uneko argazkiak direla, eta familia-mugimenduen dinamika oso bat ezkutatzen dutela. Oraingo metodologia eta tresnekin, zaila da –gutxienez zentsuaren ikuspegitik– hori guz-

de vista censal, resulta muy difícil aprehender. La diferencia de efectivos entre un grupo u otro, no deja de ser un saldo de entradas y salidas a ese tipo, movimientos de los que en muchos casos desconocemos la procedencia de una manera fiable, así como su propia cuantificación.

tia atzematea. Talde baten edo bestearen kide-diferentziak mota horretatiko irteerak –edo mota horretarako sarrerak– baino ez dira, eta askotan ez dakigu ziur nondik datozen irteera-sarrera horiek, ez eta horiek zenbatekoak diren ere.

**5.2.1** *BEE E.P.V.* **1996** **NU**

**FAMILIA-KOPURUAREN BILAKAERA MOTARI ETA BATEZ-BESTEKO TAMAINARI JARRAIKI 1981-1996**

EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE FAMILIAS POR TIPO Y DE SU TAMAÑO MEDIO 1981-1996

| | 1981 | | | 1991 | | | 1996 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **EAE** C.A.E. | **B.B.T.** T. Medio | % | **EAE** C.A.E. | **B.B.T.** T. Medio | % | **EAE** C.A.E | **B.B.T.** T. Medio | % |
| **GUZTIRA** | | | | | | | | | |
| TOTAL | **578.249** | **3,69** | **100,00** | **632.075** | **3,32** | **100,00** | **683.286** | **3,05** | **100,00** |
| **PERTSONA BAKARREKOA** | | | | | | | | | |
| UNIPERSONAL | 44.688 | 1,00 | 7,73 | 73.648 | 1,00 | 11,65 | 105.155 | 1,00 | 15,39 |
| **KONPOSATUA** | | | | | | | | | |
| COMPUESTA | 19.593 | 2,60 | 3,39 | 17.665 | 2,35 | 2,79 | 19.628 | 2,29 | 2,87 |
| **Ahaideekin** | | | | | | | | | |
| Con parientes | – | – | – | 14.316 | 2,34 | – | 14.964 | 2,28 | – |
| **Ahaideak ez direnekin** | | | | | | | | | |
| Con no parientes | – | – | – | 3.349 | 2,42 | – | 4.664 | 2,34 | – |
| **GUNEA SEME-ALABARIK GABE** | | | | | | | | | |
| NUCLEAR SIN HIJOS | 87.024 | 2,16 | 15,05 | 99.653 | 2,11 | 15,77 | 115.096 | 2,09 | 16,84 |
| **Bakarrik** | | | | | | | | | |
| Sola | 75.822 | 2,00 | – | 90.265 | 2,00 | – | 105.763 | 2,00 | – |
| **Handitua** | | | | | | | | | |
| Ampliada | 11.202 | 3,22 | – | 9.388 | 3,13 | – | 9.333 | 3,11 | – |
| **Ahaideekin** | | | | | | | | | |
| Con parientes | – | – | – | 8.756 | 3,13 | – | 8.369 | 3,11 | – |
| **Ahaideak ez direnekin** | | | | | | | | | |
| Con no parientes | – | – | – | 632 | 3,16 | – | 964 | 3,13 | – |
| **GUNEA SEME-ALABEKIN** | | | | | | | | | |
| NUCLEAR CON HIJOS | 363.571 | 4,38 | 62,87 | 361.657 | 4,11 | 57,22 | 383.802 | 3,94 | 51,48 |
| **Bakarrik** | | | | | | | | | |
| Sola | 312.065 | 4,21 | – | 323.230 | 3,99 | – | 319.726 | 3,84 | – |
| **Handitua** | | | | | | | | | |
| Ampliada | 51.506 | 5,41 | – | 38.427 | 5,13 | – | 32.038 | 4,96 | – |
| **Ahaideekin** | | | | | | | | | |
| Con parientes | – | – | – | 36.684 | 5,12 | – | 29.926 | 4,96 | – |
| **Ahaideak ez direnekin** | | | | | | | | | |
| Con no parientes | – | – | – | 1.743 | 5,24 | – | 2.112 | 5,03 | – |
| **GURASO BAKARREKOA (AITA)** | | | | | | | | | |
| MONOPATERNAL (PADRE) | 6.441 | 3,08 | 1,11 | 9.258 | 2,87 | 1,46 | 13.487 | 2,71 | 1,78 |
| **Bakarrik** | | | | | | | | | |
| Sola | 5.341 | 2,87 | – | 8.073 | 2,72 | – | 10.881 | 2,59 | – |
| **Handitua** | | | | | | | | | |
| Ampliada | 1.100 | 4,07 | – | 1.185 | 3,92 | – | 1.303 | 3,74 | – |
| **Ahaideekin** | | | | | | | | | |
| Con parientes | – | – | – | 1.054 | 3,93 | – | 1.084 | 3,74 | – |
| **Ahaideak ez direnekin** | | | | | | | | | |
| Con no parientes | – | – | – | 131 | 3,81 | – | 219 | 3,74 | – |
| **GURASO BAKARREKOA (AMA)** | | | | | | | | | |
| MONOPATERNAL (MADRE) | 34.298 | 3,01 | 5,93 | 49.536 | 2,84 | 7,84 | 68.601 | 2,73 | 8,97 |
| **Bakarrik** | | | | | | | | | |
| Sola | 28.358 | 2,79 | | 42.837 | 2,68 | – | 54.007 | 2,60 | – |
| **Handitua** | | | | | | | | | |
| Ampliada | 5.940 | 4,05 | – | 6.699 | 3,81 | – | 7.297 | 3,70 | – |
| **Ahaideekin** | | | | | | | | | |
| Con parientes | – | – | – | 5.858 | 3,81 | – | 6.175 | 3,70 | – |
| **Ahaideak ez direnekin** | | | | | | | | | |
| Con no parientes | – | – | – | 841 | 3,80 | – | 1.122 | 3,67 | – |
| **GUNE ASKOTARIKOA** | | | | | | | | | |
| POLINUCLEAR | 22.634 | 6,02 | 3,91 | 20.658 | 5,86 | 3,27 | 18.155 | 5,73 | 2,66 |
| **Bi bikote edo gehiagorekin** | | | | | | | | | |
| Con dos o más parejas | – | – | – | 12.328 | 6,01 | – | 9.889 | 5,94 | – |
| **Bikote bakarrarekin** | | | | | | | | | |
| Con una sola pareja | – | – | – | 7.119 | 5,70 | – | 6.845 | 5,57 | – |
| **Bikoterik gabe** | | | | | | | | | |
| Sin ninguna pareja | – | – | – | 1.211 | 5,24 | – | 1.421 | 5,08 | – |

En el cuadro 5.2.1 podemos ver como de los siete grandes tipos de familia, cinco crecen y los otros dos disminuyen sus efectivos. Así, del saldo de las 51.200 que han aparecido entre 1991 y 1996, 31.500 son unipersonales (en la vivienda sólo reside una persona), 15.500 son parejas sin hijos, 11.800 monopaternales encabezadas por una madre, 5.800 por un padre y 1.900 compuestas –familias en las que no existe núcleo familiar y en las que las personas pueden estar relacionadas o no por lazos de parentesco–.

Por el contrario, en cinco años se pierden 9.900 familias nucleares con hijos y 2.500 con más de un núcleo.

Con una mayor intensidad, el quinquenio analizado mantiene las mismas pautas de evolución en la estructura familiar, que las que se pueden apreciar entre 1981 y 1991: una clara tendencia a la pérdida de peso de las familias nucleares con hijos, modelo considerado como moderno, frente al crecimiento de tipos derivados de destrucción de familias nucleares –por mortalidad o ruptura familiar– o nuevos en el sentido de convertirse en más frecuentes, los que antes tenían muy poco peso.

5.2.1 taulan ikus dezakegu nola, bost familia-mota nagusietatik, bostek gora egin duten; beste biak, aldiz, behera. Izan ere, 1991 eta 1996 artean agertu diren 51.200 familietatik, 31.500 pertsona bakarrekoak dira (etxebizitzan pertsona bat bizi da); 15.500, seme-alabarik gabeko bikoteak dira; 11.800 guraso bakarrekoak (burua ama bat dela); 5.800 guraso bakarrekoak (burua aita bat dela), eta 1.900 konposatuak –familia horietan ez dago familiagunerik eta kideen artean ez dago beti ahaidetasun-harremanik–.

Aldiz, bost urte horietan, seme-alabak dituzten 9.900 familia galdu dira, eta gune bat baino gehiagoko 2.500.

Intentsitate handiagorekin bada ere, aztertzen ari garen bosturtekoan, familia-egiturako bilakaerak eredu berari jarraitu dio, 1981 eta 1991 artean antzemandako eredu berari, hain zuzen: seme-alabak dituzten familia nuklearrak pisua galduz joan dira (hori da, hain zuzen, modernotzat jotzen den eredua); familiagune hautsietatik sortutako familia-motak (gurasoren bat hiltzeagatik edo gurasoak banantzeagatik) edo familia-mota berriak haziz joan dira, hau da, ohikoagoak bihurtu dira lehen pisu txikia zutenak.

Evolución del número de familias por tipo. 1981-1996.

Gráfico **5.2.1 Grafikoa**

**Familia-kopuruaren bilakaera motaka. 1981-1996.**




Así, mientras que en 1981 las personas solas representaban algo menos de un 8% del total de familias –unas 45.000 personas–, en 1996 han pasado a suponer el 15,5% –105.000– personas. Las familias monopaternales encabezadas por una madre, han pasado de pesar un 6% en 1981 a un 9% en 1996.

Por otro lado, en 1981 las familias nucleares con hijos representaban el 63% del total, descendiendo al 51% en 1996. No obstante el número de personas que conviven en una familia del tipo citado no ha caído tan fuertemen-

Izan ere, 1981ean, biztanle bakarreko familia guztien % 8tik behera hartzen zuten (45.000 bat biztanle); 1996an, aldiz, % 15,5 hartzera igo dira (105.000 biztanle). Ama bat buru duten guraso bakarreko familiak, berriz, 1981ean % 6 hartzen zuten, eta 1996an, % 9.

Bestalde, 1981ean, seme-alabak zituzten familia nuklearrek guztizkoaren % 63 hartzen zuten; 1996an, % 51ra jaitsi dira. Hala ere, horrelako motako familia batean elkarrekin bizi den biztanle-kopurua ez da hainbeste jaitsi:

te: del 74% del total de residentes en la Comunidad en 1981 al 66% en 1996. Esta variación viene determinada por la disminución del tamaño medio familiar, de 4,38 personas en 1981, a 4,11 en 1991 y a 3,94 en 1996, asociada a la fuerte caída de la natalidad del último decenio.

1981ean, gure erkidegoan bizi zirenen guztizkoaren % 74 ziren; 1996an, berriz, % 66. Aldakuntza hori familiaren batez besteko tamaina jaitsi izanak eragin du: 4,38 biztanle 1981ean, 4,11 1991an eta 3,94 1996an; jaitsiera hori azken hamarkadan jaiotza-tasak jaitsi izanarekin lotuta dago.

## 5.3 Formación y permanencia en la familia: las tasas de jefatura

Como dijimos anteriormente la evolución del censo familiar depende de las entradas de nuevas familias y la salida de otras, dando lugar a segundas familias o simplemente desapareciendo. Para medir una parte del fenómeno de entradas y desapariciones, se suele utilizar la evolución de la proporción de personas de referencia sobre el total de población en familia por edad o tasas de jefatura.

## 5.3 Familiak osatzea eta familian irautea: buruzagitza-tasak

Arestian esan dugunez, familia-zentsuaren bilakaera familia berriak sartzearen eta beste batzuek irtetearen menpe dago; horrela bigarren familiak sortzen dira edo familiak desagertu egiten dira. Sarreren eta desagerpenen zati bat neurtzeko, honako metodo hau erabiltzen da: erreferentziako zenbat pertsona dauden familiako biztanle-kopuru osoaren aldean, eta adinka banatu (buruzagitza-tasak).

Evolución de las tasas de jefatura. 1981-1996. Gráfico **5.3.1 Grafikoa** **Buruzagitza-tasen bilakaera. 1981-1996.**




De la lectura del gráfico 5.3.1 se pueden deducir dos conclusiones muy claras: un claro retraso de los jóvenes a la hora de formar una familia a partir de 1981, estabilizándose en el último quinquenio, y por otro lado una prolongación de la permanencia en la familia (en el hogar o la vivienda familiar) de las personas mayores. Esta última tendencia tiene ritmos similares en los últimos quince años.

El retraso en la nupcialidad y/o cohabitación en relación a las entradas, el aumento de la esperanza de vida y la mejora sensible de las condiciones de salud de las personas mayores (además del cambio en las políticas de salud y asistencia social dirigidas a este subgrupo de población) en relación a las salidas, explican las tendencias señaladas arriba.

5.3.1 grafikoa irakurtzetik, bi ondorio argi atera daitezke: alde batetik, 1981etik aurrera, asko atzeratzen dute gazteek familia osatzeko adina; azken bosturtekoan, egonkortu egin da adin hori; eta bestetik, asko luzatu dute zaharrek familian (etxegunean edo familia-etxebizitzan) irauten dituzten urteak. Azken joera horrek antzeko erritmoak ditu azken hamabost urteetan.

Hona hemen arestian aipatutako joerak azaltzen dituzten aldagaiak: ezkontzea edo elkarrekin bizitzea atzeratzea (sarrerei dagokienez); bizi-itxaropena igotzea, eta zaharren osasun-baldintzak nabarmen hobetzea (eta biztanle--talde horri zuzendutako osasun eta gizarte-laguntzako politikak aldatu izana), irteerei dagokienez.

**ERREFERENTZIAKO PERTSONA-KOPURUAREN ETA BURUZAGITZA-TASEN BILAKAERA. 1991-1996**

EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE PERSONAS DE REFERENCIA Y DE LAS TASAS DE JEFATURA. 1991-1996

| Jaiotze-urtea / Año de nacimiento | Adina / Edad 1991 | Adina / Edad 1996 | 1991 Pertsonak / Efectivos | 1991 Tasa / Tasa | 1996 Pertsonak / Efectivos | 1996 Tasa / Tasa | 1996-1991 Diferentzia / Diferencia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA / TOTAL** | | | 632.075 | | 683.286 | | 51.211 |
| 1985-1981 | 5-9 | 10-14 | 0 | – | 27 | – | 27 |
| 1980-1976 | 10-14 | 15-19 | 6 | – | 397 | 0,2 | 391 |
| 1975-1971 | 15-19 | 20-24 | 316 | 0,2 | 4.575 | 2,6 | 4.259 |
| 1970-1966 | 20-24 | 25-29 | 4.858 | 2,8 | 27.042 | 15,7 | 22.184 |
| 1965-1961 | 25-29 | 30-34 | 28.675 | 16,4 | 58.104 | 33,7 | 29.429 |
| 1960-1956 | 30-34 | 35-39 | 60.563 | 36,6 | 72.202 | 43,8 | 11.639 |
| 1955-1951 | 35-39 | 40-44 | 65.156 | 44,3 | 69.780 | 47,6 | 4.624 |
| 1950-1946 | 40-44 | 45-49 | 68.660 | 47,1 | 71.993 | 49,7 | 3.333 |
| 1945-1941 | 45-49 | 50-54 | 63.362 | 48,7 | 65.561 | 51,3 | 2.199 |
| 1940-1936 | 50-54 | 55-59 | 57.643 | 50,6 | 58.687 | 53,3 | 1.044 |
| 1935-1931 | 55-59 | 60-64 | 69.127 | 53,1 | 68.926 | 55,8 | -201 |
| 1930-1926 | 60-64 | 65-69 | 64.398 | 55,5 | 63.271 | 58,5 | -1.127 |
| 1925-1921 | 65-69 | 70-74 | 53.873 | 58,1 | 51.501 | 61,4 | -2.372 |
| 1920-1916 | 70-74 | 75-79 | 37.865 | 59,2 | 34.052 | 62,2 | -3.813 |
| 1915-1911 | 75-79 | 80-84 | 29.333 | 58,7 | 22.579 | 59,6 | -6.754 |
| 1910-1906 | 80-84 | 85-89 | 18.070 | 54,5 | 10.791 | 53,1 | -7.279 |
| <=1905 | 85-89 | ≥ 90 | 7.797 | 48,6 | 3.798 | 46,7 | -3.999 |
| | ≥ 90 | | 2.373 | 42,8 | – | – | -2.373 |

No hay que perder de vista que las tasas de jefatura presentan el saldo de los movimientos de altas, bajas y cambios de familias. Aunque comparándolas en varios censos podemos simular los flujos y tendencias de la formación familiar, no dejan de ser aproximaciones que esconden una cantidad mayor de variaciones familiares. Para realizar una primera evaluación de estos flujos presentamos en el cuadro 5.3.1 los saldos por edad de la personas de referencia entre 1991 y 1996.

Recordemos que las familias se definen y contabilizan en función de las personas de referencia. Hasta no hace mucho se utilizaban otros conceptos conteniendo sesgos ideológicos hoy inaceptables: cabeza de familia, persona principal o incluso primera persona, evolución de conceptos censales premodernos tales como vecinos, fuegos, etc.

El de persona de referencia resulta ser un concepto más aséptico, netamente estadístico, que como su nombre indica, sirve exclusivamente para reconstruir los parentescos de forma ordenada con respecto a una única persona, eso sí, con unas condiciones mínimas de cara a facilitar el trabajo estadístico de definición de núcleos familiares y familias. En el apartado de definiciones aparece de forma precisa la concreción de este concepto en el epígrafe de status familiar.

A pesar de que también cada saldo por grupo de edad resume todo tipo de movimientos, si agrupamos las diferencias positivas y las negativas, nos encontramos con que del total de 51.211 familias a mayores que hemos contabilizado en 1.996 con respecto a 1.991, realmente

Ez da begi-bistatik galdu behar buruzagitza-tasek gorabehera guztien (irteerak, sarrerak eta aldaketa) emaitza erakusten dutela. Zentsu askotan alderatzen baditugu, familia-osaketari buruzko gorabeherak eta joerak irudika ditzakete tasa horiek; hala ere, hurbilketak baino ez dira, eta familia-aldaketen kopuru handiago bat ezkutatzen dute. Gorabehera horien lehen balioespen bat egiteko, erreferentziako pertsonen sexukako saldoak aurkezten ditugu 5.3.1 taulan (1991 eta 1996 arteko datuak).

Gogora dezagun familiak erreferentziako pertsonen arabera definitzen eta zenbatzen direla. Orain dela gutxi arte, beste kontzeptu batzuk erabiltzen ziren, zeinek orain onartezinak diren kutsu ideologikoa baitute: familiaburua, pertsona nagusia edo are lehen pertsona. Izen horiek antzinako zentsu-kontzeptuen (hala nola, auzokoak, sukaldea, etab.) bilakaera ziren.

Erreferentziako pertsonarena, aldiz, kontzeptu aseptikoagoa da (kontzeptu soilik estatistikoa). Haren izenak adierazten duenez, pertsona bakarrari buruzko ahaidetasunak modu ordenatu batean berreraikitzeko baino ez du balio; dena dela, gutxieneko baldintza batzuk behar dira, familiaguneak eta familiak berak definitzeko estatistika-lana errazteari begira. Definizioen atalean, zehatz-mehatz agertzen da zertan den kontzeptu hori (familia-statusari buruzko atalean, hain zuzen).

Nahiz eta adin-taldekako saldo bakoitzak ere era guztietako mugimenduak laburbiltzen dituen, diferentzia positiboak eta negatiboak taldekatzen baditugu, honako hau aurkituko dugu: 1996an 51.211 familia gehiago zenbatu ditugu, 1991aren aldean; familia horietarik, dena dela,

como mínimo 79.129 serían altas y también como mínimo 27.918 bajas, lo que hace un total de 107.047 movimientos familiares.

Para aproximarnos a la riqueza o variedad de los cambios ocultos en los movimientos familiares, podemos restar de la cifra de altas (mínimas) los matrimonios acontecidos entre 1991 y 1996. Para ese período la media anual de matrimonios rondaba los 9.800 eventos, con lo que en cinco años tendríamos 49.000. Tenemos, a grosso modo, 30.000 familias de alta por otras vías: rupturas familiares (por separación o divorcio), familias que proceden de fuera de la Comunidad (inmigrantes), familias formadas por cohabitantes (no casados) o por segregación de núcleos familiares de una familia plurinuclear.

Hay movimientos o cambios familiares que pueden o no afectar al saldo total; el paso de ser una familia nuclear con o sin hijos a una unipersonal o monopaternal vía defunción de uno de los cónyuges (o cohabitantes no casados, si son pareja de hecho), producirá un alta si el que desaparece es el marido y no tiene la misma edad que la esposa. Si desaparece la esposa –circunstancia estadísticamente menos probable–, al definirse la persona de referencia dando prioridad a los varones, tendremos un movimiento pero no será perceptible a través de las tasas.

Pasaría los mismo en sentido inverso; si una persona que vive sola (familia unipersonal) o en un núcleo monopaternal, pasa a formar parte de una familia nuclear, dependerá de si se convierte en persona de referencia (caso de ser varón) o no para que pueda visualizarse el cambio.

Precisamos estas posibilidades para avanzar que el estudio de los movimientos familiares pasa por analizar las tasas de jefatura, pero teniendo en cuenta también el sexo y los tipos familiares, para poder aproximarse a toda su riqueza y sacar las conclusiones más pertinentes de cara a su utilización en la planificación del bienestar social o en previsiones de demanda de vivienda, por poner dos ejemplos donde se viene empleando la información familiar.

La dinámica de los movimientos familiares también nos puede aportar alguna información adicional de las evoluciones de población municipal. Así, si tomamos el procedimiento de cálculo de movimientos arriba señalado podemos comprobar que en Bilbao, como mínimo aparecieron en el quinquenio 1991-1996 12.356 familias, mientras que desaparecieron casi 6.922, produciendo un saldo positivo de algo más de 5.400. Si partimos de que Bilbao contaba en 1996 con 122.456 familias –el 18% de la C.A. de Euskadi–, vemos que hay un desequilibrio significativo en las bajas; las altas representan el 15% del total de la C.A. de Euskadi y sin embargo las bajas el 24%.

79.129 gutxienez sarrerak izango lirateke, eta 27.918 gutxienez, irteerak, hau da, guztira 107.047 familia-mugimendu izango lirateke.

Familia-mugimenduetan ezkutatuta dauden aldaketak benetan nolakoak eta zenbatekoak diren aztertzeko, sarreren zenbakitik (gutxienekoak), 1991 eta 1996 artean jazotako ezkontzak ken ditzakegu. Aldi horri buruz, ezkontzen urteko batez bestekoa 9.800 ezkontza ingurukoa zen; beraz, bost urtetan, 49.000 izango genituzke. Gutxi gorabehera, 30.000 familien sarrerak ditugu, beste bide batzuen bidez: familia-hausturak (banantze edo dibortziatzeagatik), gure erkidegotik kanpo datozen familiak (etorkinak), elkarrekin bizi direnek osatutako familiak (ez--ezkonduak) edo gune askotako familia bat hainbat familiagunetan bereizteagatik.

Zenbait familia-mugimenduk edo -aldaketak ez dago jakiterik guztizko saldoa aldatzen dutenentz. Familia nuklear bat (seme-alabekin edo gabe) izatetik pertsona bakarreko edo guraso bakarreko (edo bizikide ez-ezkonduak, izatezko bikotea badira) izatera pasatzeak, ezkontideetako bat hiltzeagatik, sarrera bat eragingo du, desagertzen dena senarra bada, eta emazteak ez bezalako adina badu. Emaztea desagertzen bada (estatistikoki hori ez da probablea), kontuan izanik erreferentziako pertsona gizonezkoak lehenetsiz definitzen dela, mugimendu bat izango dugu, baina mugimendu hori ez tasen bidez antzemango.

Kontrako zentzuan gauza bera gertatuko litzateke: bakarrik (pertsona bakarreko familia) edo guraso bakarreko gune batean bizi den bat familia nuklear bateko kide izatera pasatzen bada, aldaketa hori ikuskatu ahal izateko, kontuan hartu beharko da erreferentziako pertsona bihurtzen denentz (gizonezkoa bada).

Aukera horiek zehaztu ditugu, familia-mugimenduen azterketa egin aurretik, buruzagitza-tasak aztertu behar direla aurreratzeko, baina sexua eta familia-motak ere kontuan izanik. Horrela bakarrik hurbildu ahal izango gara jakitera mugimendu horiek nolakoak diren, eta horrela bakarrik atera ahal izango ditugu ondorio egokienak, gizarte-ongizatearen plangintzan erabiltzeko edo etxebizitzaren eskariaren aurreikuspenak egiteko, familia-informazioa erabiltzen den bi adibide baino ez jartzearren.

Familia-mugimenduen dinamikak, era berean, udaletako biztanleriaren bilakaerari buruzko informazio gehigarri batzuk ere eskain diezazkiguke. Izan ere, mugimenduak kalkulatzeko, arestian aipatutako prozedura hartzen badugu, honako hau egiaztatu ahal izango dugu: Bilbon, 1991-1996 bosturtekoan, gutxienez, 12.356 familia agertu ziren, eta 6.922 desagertu ziren; ondorioz, saldo positiboa 5.400 familiatik gorakoa izan zen. Bilbok 122.456 familia zituen 1996an (Euskal AEko familien % 18); kopuru horretatik abiatuta, ikusten dugu desoreka nabarmena dagoela irteeretan: sarrerek Euskal AEko guztizkoaren % 15 hartzen zuten; irteerek, berriz, % 24.

Una pirámide más envejecida, la distribución del tipo de familias (donde pueden primar las de menos miembros, las unipersonales, etc.), la emigración familiar ya sea hacia la conurbanización que rodea  Bilbao, o a fuera de la Comunidad (migración de jubilados), explicarían este sobrepeso de las bajas familiares.

En el polo opuesto tendríamos Vitoria-Gasteiz; con un total de 70.302 familias en 1996 representa poco más del 10% del total, alcanzando las 9.778 altas –un 12,3% del total– y 1.547 bajas –el 5,5% del total– El incremento en el número de familias ascendió a 8.231, distanciándose netamente tanto de Bilbao como de Donostia-San Sebastián.

Familia-irteeren gainpisu hori azaltzeko, honako hauek hartu behar dira kontuan: piramide zahartuagoa, familia-moten banaketak (non nagusi izan baitaitezke kide gutxienekoak, pertsona bakarrekoak, etab.) eta familien emigrazioa, bai Bilbao inguratzen duen konurbaziora, bai gure erkidegotik kanpora (erretiratuen migrazioa).

Beste muturrean, Vitoria-Gasteiz izango genuke: 1996an, guztira, 70.302 familia zituen, eta familia guztien % 10 inguru hartzen zuen; 9.778 sarrera (guztizkoaren % 12,3) eta 1.547 irteera (guztizkoaren % 5,5) izan zituen. Familia kopuruari dagokionez, gehikuntza 8.231koa izan zen, eta argi eta garbi urrundu zen Bilbotik zein Donostiatik.

Tasa de bajas familiares por municipio (por mil). 1991-1996. Mapa **5.3.1 Mapa** **Familia-irteeren tasa udalerrika (milakoak). 1991-1996**




En el mapa 5.3.1 presentamos la distribución municipal de tasas de bajas familiares del período 1991-1996. Aunque se aproxima al mapa de evolución de la población, obviamente, también hay que decir que presenta sus diferencias.

Tenemos que precisar que las tasas en general no sirven para medir con precisión fenómenos en áreas pequeñas, en donde los eventos poblacionales pueden tener en muchos casos una componente aleatoria muy fuerte; no obstante, plasmadas en un mapa nos pueden arrojar algún tipo de luz de cara a conocer mejor la dinámica familiar.

5.3.1 mapan aurkezten dugu nola banatzen diren udalerrika familia-irteeren tasak 1991-1996 aldian. Nahiz eta biztanleriaren bilakaerari buruzko mapara hurbiltzen den, esan behar da, era berean, diferentziak ere badituz.

Zehaztu behar dugu ezen tasek, oro har, ez dutela balio eremu txikietako gertakariak zehaztasunez neurtzeko; izan ere, eremu horietan, biztanleri gertakizunek ausazko osagai oso handia izaten dute sarritan. Hala ere, mapa batean irudikaturik, familien dinamika hobeto ezagutzen lagun diezagukete.

Como cabría esperar las comarcas más rurales y/o más envejecidas destacan por su alta mortalidad familiar. Que superen una tasa del 74 por mil tenemos unos 50 municipios agrupados en 4 zonas.

La parte este de Vitoria-Gasteiz y su continuación en la Montaña Alavesa configuran una de ellas. Ribera Alta y Salinas de Añana, municipios de Valles Alaveses también se incluyen en este grupo de pérdidas altas.

Arratia-Nervión aparece como la comarca más nítida, mientras que se dibuja una corona con municipios de este tipo en Gernika-Bermeo y Markina-Ondarroa.

Comarcas como el Gran Bilbao, que destacan por sus pérdidas poblacionales, no lo hacen tan nítidamente desde el punto de vista familiar.

## 5.4 Ruptura y reconstitución de núcleos familiares

El último cuarto de siglo, en nuestro país, se ha caracterizado por el cambio político y consecuentemente legal, necesario para permitir y aceptar los cambios sociales y familiares que en los países de nuestro entorno se habían venido produciendo desde mediados de siglo. Eso si, a diferente ritmo dependiendo de la localización geográfica, el grado de desarrollo económico, del peso de las distintas creencias y religiones, entre otros factores.

Podemos decir que de 1.975 a 1.985 se producen los cambios legales más importantes relativos a la familia (la Ley del divorcio en 1.981), pero hasta la siguiente década no parecen materializarse de una forma muy visible.

En 1986 7.400 personas declararon estar separadas legalmente, en 1991 eran más del doble (16.000), ralentizándose su incremento en el siguiente período (23.000).

En cuanto a la otra situación de ruptura, el divorcio, pasamos de 4.300 divorciados en 1986 a 7.400 en 1991 y a casi 14.000 en 1996.

En cuanto a la cohabitación, fenómeno muy extendido en los países del norte de Europa, en el nuestro, aunque se produce un incremento expectacular, no alcanza aquellos niveles. De 1.986 a 1.991 se produce un incremento del 130% de personas en esa situación (de 9.600 a 22.000), pasando a ser del 71% entre 1.991 y 1.996 (en este último año se contabilizaron 38.000 personas cohabitantes).

Todas estas situaciones personales configuran una base nueva de cara a las posibilidades de formación familiar, todo ello enmarcado en nuevas actitudes y valores sociales, que de un modo u otro las tienen que validar.

Espero zitekeenez, eskualde landakoenak edo zahartuenak nabarmentzen dira familien hiltze-tasa handiagatik. Milako 74ko tasa gainditzen dutenen artean, 50 udalerri ditugu, 4 zonatan bilduta.

Vitoria-Gasteizko ekialdea eta Arabako Mendialdeko jarraipenak osatzen duten zona horietako bat. Erribera Goitia eta Gesaltza ere (Arabako Ibarretako bi udalerri) galera handiko talde horretan sartzen dira.

Arrati Nerbioi ere argi eta garbi familia-galera handiko eskualdeen artean agertzen da; Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroan ere horrelako hainbat udalerri dago.

Beste eskualde batzuk (hala nola Bilbo Handia) biztanle--galeragatik nabarmentzen dira; ez, ordea, familia-galerari dagokionez.

## 5.4 Familiaguneen haustura eta berrosatzea

Azken mende-laurdenean, aldaketa politiko bat –eta beraz, aldaketa legezko bat– gertatu da gure herrian. Aldaketa horiek beharrezkoak ziren gure inguruko herrialdeetan mende-erdialdetik aurrera gertatuz joan diren gizarte eta familia arloko aldaketak baimentzeko eta onartzeko. Dena dela, aldaketa horiek bizkorragoak edo motelagoak izan dira, besteak beste, honako osagai hauen arabera: lurralde bakoitzaren, garapen ekonomikoaren mailaren eta sinesmen eta erlijio bakoitzaren pisuaren arabera.

Esan dezakegu ezen familiari buruzko legezko aldaketa nagusiak 1975etik 1985era bitartean gertatu zirela (Dibortzioaren Legea 1981ean); aldaketa horiek, dena dela, ez dira argi eta garbi gauzatzen hurrengo hamarkada arte.

1986an, 7.400 biztanlek aitortu zuten legez bananduta zeudela; 1991n, bi aldiz gehiago ziren (16.000), eta hurrengo aldian moteldu egin zen gehikuntza (23.000).

Hausturako beste egoerari dagokionez (dibortzioari dagokionez, hain zuzen), 1986an 4.300 dibortziatu genituen; 7.400 1991n, eta ia 14.000 1996an.

Bizikidetasunari dagokionez, esan behar da gertakari hori oso zabalduta dagoela Europako iparraldeko herrialdeetan; gurean, ordea, ez ditu maila horiek iristen, nahiz eta gehikuntza ikusgarria gertatu den. 1986tik 1991ra % 130eko gehikuntza gertatu da horrelako egoeran daudenen artean (9.600tik 22.000ra); 1991tik 1996ra % 71ekoa izan da (azken urte horretan, 38.000 bizikide zenbatu ziren).

Egoera pertsonal horiek guztiek oinarri berri bat osatu dute, familia osatzeko aukerei dagokienez. Hori guztia gizarte-jarrera eta balio berrien inguruan egituratuta, nolabait horiek berretsi behar baitituzte aukera horiek.

En los apartados anteriores hemos visto la riqueza de tipos de familia así como nos hemos aproximado a los movimientos y cambios familiares. Otra forma de analizar estas variaciones viene dada por el intento de estudiar las familias según el punto de partida familiar de sus miembros. Aunque ya es tradicional esta perspectiva en los paises anglosajones o allí donde las rupturas familiares tienen un peso importante, entre nosotros, hasta ahora, no se había realizado un intento de sistematizar el efecto de las rupturas y las reconstituciones familiares en la estructura familiar, al menos desde el ámbito estadístico censal.

Aurreko ataletan ikusi dugu zenbat eta nolako familia-motak dauden, eta familien gorabehera eta aldaketetara hurbildu gara. Aldakuntza horiek aztertzeko beste modu bat honako hau da: familiak kide bakoitzaren abiatze-egoeraren arabera aztertzea. Herrialde anglosaxoietan –edo familia-hausturek pisu handia dutenetan– ohikoa da ikuspegi hori; gure artean, hala ere, ez da orain arte inolako saiorik egin, familia-hausturek eta -berrosatzeek familia-egituran nolako eragina duten sistematizatzeko, ez behintzat zentsuen estatistika-eremutik.

Fue preciso el centrar el análisis en los núcleos familiares, al afectar las rupturas o reconstituciones, sobre todo, a las personas ligadas por los lazos de parentesco más próximos.

Beharrezkoa izan zen azterketa familiaguneetan zentratzea; izan ere, hausturek edo berrosatzeek, batez ere, ahaidetasun-lokarri estuenek lotutako pertsonak ukitzen dituzte.

Se definieron tres tipos de núcleos familiares en relación a su origen, que a su vez se pueden desagregar en otros dos subtipos cada uno.

Hiru familiagune-mota zehaztu genituen, jatorriaren arabera; horietako bakoitza, gainera, beste bi azpitaldetan destaldeka daiteke.

Por un lado tenemos los núcleos originales, ya sean de casados o de solteros (cohabitantes), que se diferencian por ser primeras nupcias en un caso y primeras uniones en el otro. Conviven y si tienen hijos son comunes.

Alde batetik, gune jatorrizkoak ditugu, bai ezkonduenak, bai ezkongabeenak (bizikideenak). Lehenak lehen aldiz ezkonduak dira; bigarrenak, berriz, lehen aldiz bikote gisa bizi direnak. Elkarrekin bizi dira, eta seme-alabak bienak dira.

El segundo tipo lo conforman los núcleos rotos o destruídos; se incluyen todos los núcleos monopaternales, ya sea por viudedad del padre o de la madre (núcleos rotos por viudedad), ya sea por separación, con lo que el padre o la madre tienen un estado civil diferente al de viudo/a (núcleos rotos por separación).

Bigarren mota gune hautsi edo puskatuek osatzen dute; guraso bakarreko gune guztiak sartzen dira: bai aita edo ama alargun geratzeagatik (alarguntzagatiko gune hautsiak), bai banantzeagatik, eta, beraz, aitak edo amak alargunaz besteko egoera zibil bat du (banantzeagatiko gune hautsiak).

Por último tenemos los núcleos propiamente reconstituidos, que son aquellos en que ambos cónyuges están casados en segundas o posteriores nupcias y pueden aportar al núcleo sus propios hijos (núcleos matrimoniales reconstituidos), o puede estar formados por cohabitantes en segundas o posteriores uniones y donde también puede haber hijos de un solo padre ( núcleos de uniones reconstituidos).

Azkenik, gune berrosatuak direlakoak ditugu: bi ezkontideak bigarren aldiz edo gehiagotan ezkonduak dira, eta aurreko ezkontzatik, seme-alabak ekar ditzakete gunera (ezkontza-gune berrosatuak), edo bigarren aldiz edo gehiagotan bikotean bizitzen hasi direnek ere osatuta egon daitezke, eta guraso bakar baten seme-alabak egon (bikote berrosatuetako guneak).

En el cuadro 5.4.1 podemos constatar cómo la inmensa mayoría de los núcleos familiares, cinco de cada seis, se podrían definir como originales. De ellos, una pequeña parte, no llegan a 13.000, serían los formados por solteros. La diferencia más clara entre un tipo y otro viene dada por los hijos: el 75% de los núcleos de casados originales tienen hijos frente al 25% de los núcleos de solteros. La diferencia de tamaño medio entre un subtipo y otro resulta ser de una persona.

5.4.1 taulan egiazta dezakegu nola familiagune gehientsuenak (seitik bost) jatorrizkotzat jo ditzakegun. Horietarik, zati txiki bat (13.000) ezkongabeek osatutakoak izango lirateke. Mota baten eta bestearen arteko diferentzia nabarmenena seme-alabek jartzen dute: gune jatorrizko ezkonduentan, % 75ek seme-alabaren bat dute; ezkongabeen guneetan, berriz, % 25ek. Azpitalde baten eta bestearen tamaina-diferentzia kide batekoa da batez beste.

El segundo tipo de núcleo sería el que agrupa a los procedentes de una ruptura, ya sea por fallecimiento o por separación o divorcio de uno de los miembros del matrimonio o pareja. Esta clase recoge el 14,5% de los núcleos, siendo de ellos el 62% por viudedad.

Bigarren motak haustura batetik datozenak biltzen ditu, hau da, senar-emazte edo bizikideetako bat hiltzeak –edo banantze edo dibortziatzeak– eragindako hausturetatik datozenak. Mota horrek guneen % 14,5 hartzen dute, eta horietarik, % 62 alarguntzagatik dira.

Ambos subtipos poseen prácticamente el mismo tamaño medio familiar 2,5 y en ambos predominan las madres con hijos en la misma proporción: el 83,5%. El que la proporción de núcleos rotos de padres con hijos o de madres con hijos se mantenga independientemente de la causa de la ruptura avala la creencia popular de que los varones cuando pierden su pareja vuelven a 'estar solteros'. Esto es, de los 31.670 núcleos rotos por separación, sólo en 5.230 casos el padre se queda con alguno o todos los hijos –el 16,5%. de los casos– (como hemos dicho la misma proporción de viudos con hijos sobre el total de núcleos rotos por viudedad).

Bi azpimota horiek batez besteko familia-tamaina berdintsua dute (2,5), eta bietan seme-alabak dituzten amak nagusi dira neurri berean (% 83,5). Seme-alabak dituzten aiten edo seme-alabak dituzten amen kopuruak, beraz, ez dira aldatzen, hausturaren arrazoia zeinahi dela ere. Horrek herriaren ustea berresten du, alegia, gizonezkoak bizikidea galtzen dutenean, berriro ere "ezkongai daudela". Hau da, banantzeagatik hautsitako 31.670 guneetatik, soilik 5.230 kasutan geratzen da aita seme-alabaren batekin edo guztiekin (kasuen % 16,5). Esan dugunez, alarguntzagatik hautsitako guneen guztizkoaren aldean, seme-alabaren batekin geratzen diren gizonezko alargunek ere kopuru berdina dute.

En núcleos rotos conviven 214.000 personas en el conjunto de la C.A. de Euskadi, de las cuales 81.600 lo son por separación.

Gune hautsietan, 214.000 lagun bizi dira Euskal AE osoan; horietarik, 81.600 banantzeagatik dira.

5.4.1 BEE E.P.V. 1996 NU

**GUNE BERROSATUAK MOTAKA ETA HORIEN BATEZ BESTEKO TAMAINA. 1996**

NÚCLEOS RECONSTITUIDOS POR TIPO Y SU TAMAÑO MEDIO. 1996

| | **Guztira** Total | **Batez besteko tamaina** Tamaño medio | **Senar--emazteak** Matrimonio o pareja solo | **Senar-emazteak edo bikotea seme-alabekin** Matrimonio o pareja con hijos | **Aita seme--alabekin** Padre con hijos | **Ama seme--alabekin** Madre con hijos |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** / TOTAL | **577.445** | **3,25** | **127.116** | **366.774** | **13.795** | **69.760** |
| **GUNE JATORRIZKOAK** NÚCLEOS ORIGINALES | | | | | | |
| **Ezkonduenak** / /De casados | **469.797** | **3,4** | **114.001** | **355.796** | **–** | **–** |
| **Ezkongabeenak** / De solteros | **12.801** | **2,35** | **9.562** | **3.239** | **–** | **–** |
| **Guztira** / Total | **482.598** | **3,37** | **123.563** | **359.035** | **–** | **–** |
| **GUNE HAUTSIAK** NÚCLEOS ROTOS | | | | | | |
| **Alarguntzeagatik** / Por viudedad | **51.885** | **2,56** | **–** | **–** | **8.565** | **43.320** |
| **Banantzeagatik** / Por separación | **31.670** | **2,58** | **–** | **–** | **5.230** | **26.440** |
| **Guztira** / Total | **83.555** | **2,56** | **–** | **–** | **13.795** | **69.760** |
| **GUNE BERROSATUAK** NÚCLEOS RECONSTITUIDOS | | | | | | |
| **Senar-emazteak** / Matrimoniales | **5.090** | **3,29** | **1.544** | **3.546** | **–** | **–** |
| **Bizikideak** / De uniones | **6.202** | **3,19** | **2.009** | **4.193** | **–** | **–** |
| **Guztira** / Total | **11.292** | **3,24** | **3.553** | **7.739** | **–** | **–** |

Núcleos familiares recompuestos o reconstituidos de núcleos previamente rotos, tenemos 11.300, un 2% del total. A pesar de que los provenientes de uniones anteriores pesan poco más que los matrimoniales (el 55%), hay que tener en cuenta el escaso número de núcleos originales de solteros (de uniones no matrimoniales), con lo que no nos equivocaríamos demasiado al decir que ese tipo de núcleo adolece de una cierta interinidad (al menos las primeras uniones).

Aurretik hautsitako guneetatik berrosatu edo berreraikitako familiaguneak, berriz, 11.300 ditugu, guztizkoaren % 2. Nahiz eta aurreko bikote gisa bizi izandakoetatik senar--emazte gisa bizi izandakoetatik datozenak baino pisu gutxiago izan (% 55), kontuan izan behar da ezkongabeen gune jatorrizko gutxi (ezkontzaz kanpoko bikoteak) daudela; hori dela eta, beldurrik gabe esan dezakegu horrelako guneak nahiko behin-behinekoak direla (gutxienez lehen aldiz bikote gisa bizitzen hasten direnak).

Del total de núcleos de cohabitantes (independientemete de su origen), unos 19.000, un tercio, después de una ruptura, ha rehecho su núcleo familiar con otra unión no matrimonial. En los núcleos matrimoniales, esa proporción baja al 1%.

Elkarrekin bizi diren gune guztietatik (horien jatorria alde batera utzita), 19.000 inguruk (heren bat), elkarbizitza hautsitakoan, euren familiagunea berregin dute, ezkontzaz kanpoko beste bikote batekin. Ezkontza-guneetan, kopuru hori % 1era jaisten da.

El tamaño medio de los núcleos reconstituidos no difiere del general: 3,2, y tan sólo se diferencia en una décima el tamaño medio de los dos subtipos. En la C.A. de Euskadi 36.500 personas conviven en este tipo de núcleos. El aportar o no aportar hijos a estas nuevas familias (núcleos de matrimonio o pareja solo, o con hijos), parece no tener que ver mucho con la procedencia, ya que en ambos casos se mantiene un 70% de núcleos con hijos.

La distribución espacial de núcleos rotos o reconstituidos, si tomamos como base el territorio, no parece ser muy distinta; en Bizkaia y en Gipuzkoa pesan ligeramente más los núcleos rotos por viudez –un 9,2% del total de núcleos del territorio–, frente al 7,4% en Alava.

En el caso de de los rotos por separación, en Álava pesan más: 6,3%, en Bizkaia un 5,5% y en Gipuzkoa un 5,1%. No se nos escapa que resulta muy probable que el grado de envejecimiento tenga su peso en esas distribuciones.

Si nos vamos al detalle municipal ya se pueden apreciar más diferencias; tomando las capitales podemos constatar que Bilbao, teniendo el 17% de los núcleos familiares de la C.A. de Euskadi , la proporción de núcleos rotos, ya sea por viudedad –el 19,7%– ya sea por separación –el 21%– resulta ser superior. Las reconstrucciones matrimoniales con un 22,6% y las de uniones –21%– también pesan ligeramente más.

Salvo para el caso de los núcleos rotos por viudedad en Vitoria-Gasteiz, para el resto de casos tanto en esta ciudad como en Donostia-San Sebastián se mantiene la misma circunstancia que en Bilbao.

Si nos detenemos en Barakaldo las proporciones se invierten.

En el quinto municipio de la C.A. de Euskadi, Getxo, los núcleos rotos por viudedad y las reconstituciones de uniones tienen menos peso relativo y más los rotos por separación y las reconstrucciones matrimoniales.

Además de la influencia de las propias variables demográficas –entre las que no hay que olvidar las migratorias–no nos cabe duda de que están pesando otras de tipo cultural e incluso económicas, a la hora de poder explicar las diferencias espaciales. Por otro lado, y sobre todo para el caso de los núcleos reconstituidos, no hay que perder de vista que nos movemos con cifras muy reducidas, con lo que la aleatoriedad puede ganar mucho peso en las explicaciones.

Dado ese escaso número en algunos tipos de núcleos, o el peso de variables como la edad en otros (los rotos por viudedad) se han elegido los núcleos familiares rotos para representarlos en un mapa municipal.

Gune berrosatuen batez besteko tamaina eta tamaina orokorra berdinak dira (3,2); bi azpimoten batez besteko tamainan ere hamarren bateko diferentzia dago. Euskal AEn, 36.500 lagun horrelako guneetan bizi dira. Familia berri horietara seme-alabak ekartzeak edo ez ekartzeak (senar-emazteen edo bikoteen guneak bakarrik, edo seme-alabekin) ez dirudi zerikusi handia duenik jatorriarekin, zeren bi kasuetan seme-alabak dituzten guneak % 70 inguruan baitaude.

Gune hautsien edo berrosatuen lurralde-banaketak, oinarritzat lurralde historikoak hartuz, ez dirudi oso desberdina batetik bestera: Bizkaian eta Gipuzkoan pisu zertxobait handiagoa dute alarguntzagatik hautsitako guneek (lurraldeko guneen guztizkoaren % 9,2); Araban, berriz, pisua txikiagoa (% 7,4).

Banantzeagatik hautsitakoei dagokienez, horiek pisu handiagoa dute Araban (% 6,3), ezen ez Bizkaian (% 5,5) eta Gipuzkoan (% 5,1). Litekeena da –eta horretaz konturatu gara– zahartzapen-maila nolabaiteko pisua izatea banaketa horietan.

Udalerriak banan-banan aztertuz gero, diferentzia gehiago antzematen dira. Hiriburuei dagokienez, honako hau egiazta dezakegu: Bilbok Euskal AEko familiaguneen % 17 du; gune hautsien kopurua, hala ere, handiagoa da, bai alarguntzeagatik (% 19,7), bai banantzeagatik (% 21) hautsietan. Senar-emazteek (% 22,6) eta bizikideek (% 21) osatutako guneen berrosatzeek ere pisu zertxobait handiagoa dute.

Vitoria-Gasteizen, alarguntzagatik hautsitako guneen kasuan izan ezik, hiri horretan zein Donostian gune hautsien kopurua –Bilbon bezala– handiagoa da gainerako kasuetan.

Barakaldori dagokionez, kopuruak alderantzizkoak dira.

Euskal AEko bosgarren udalerrian (Getxon), alarguntzagatik hautsitako guneak eta bikoteen berrosatzeek pisu erlatibo txikiagoa dute, eta are handiagoa banantzeagatik hautsiek eta senar-emazteen berrosatzeek.

Demografi arloko aldagaiek berek duten eraginaz gain (eta horien artean, ez dira ahaztu behar migrazio-aldagaiak), lurraldeen arteko diferentziak azaltzerakoan, ez dugu zalantzarik beste aldagai batzuek ere badutela pisua, hala nola kultura eta are ekonomia arlokoek. Bestalde, eta batez ere gune berrosatuei dagokienez, kontuan izan behar da kopuru oso txikiak ditugula esku artean; hori dela eta, ausazkotasunak pisu handia irabaz dezake azalpenetan.

Gune-mota batzuek oso kopuru txikia dutenez, edo adina bezalako aldagaiek beste batzuetan (alarguntzagatik hautsiak) duten pisua kontuan izanik, familiagune hautsiak hautatu ditugu, udalerrikako mapa batean irudikatzeko.

Proporción de núcleos familiares rotos por separación. 1996. (%)

Mapa **5.4.1 Mapa**

**Banantzeagatik hautsitako familiaguneen proportzioa. 1996. (%)**




Con la excepción del Bajo Bidasoa y de Donostialdea, todo el centro-este de la C.A. de Euskadi parece tener un comportamiento similar en cuanto a las rupturas familiares por separación o divorcio, frente a los municipios del oeste o los fronterizos que hemos señalado antes.

Aunque el centro de gravedad se sitúa en Gipuzkoa, aparece una continuidad espacial muy nítida por el oeste en la comarcas vizcaínas del Duranguesado y una parte de Arratia-Nervión, y por el sur en el extremo oriental de la Llanada Alavesa, además de incluir el municipio de Aramaio.

A pesar de que estamos distribuyendo 31.670 núcleos en un total de 250 municipios, la mayoría de ellos muy pequeños, la continuidad territorial tan marcada, nos obliga a pensar que existen modelos familiares significativamente distintos, al menos en relación a las rupturas, en una zona y en otra. A priori, se podría plantear la tesis de modelos más tradicionales de familia, en donde el límite de la perdurabilidad familiar reside más en la mortalidad de los miembros, que no en las rupturas más o menos pactadas.

Tenemos que recordar que Gipuzkoa, y más su zona rural, ha destacado siempre en cuanto al tamaño medio familiar, al ser ligeramente superior. No podemos rechazar que otras características familiares puedan ser diferentes, por lo que su detección y análisis queda abierto a estudios posteriores.

Bidasoa Behereak eta Donostialdeak izan ezik, Euskal AEko erdi-ekialde osoak antzeko portaera bide du, banantze edo dibortziatzegatiko familia-hausturei dagokienez; mendebaldeko edo mugaldeko udalerriek, arestian aipatu dugunez, bestelako portaera bat dute.

Erdigunea Gipuzkoan kokatuta egon arren, portaera horrek jarraipen garbia du, lurraldeari dagokionez, mendebaldetik, Bizkaiko bi eskualdetan (Durangaldean eta Arrati Nerbioiko zati batean), eta hegoaldetik, Araban (Arabako Lautadako ekialdeko muturrean, bai eta Aramaion ere).

31.670 gune 250 udalerritan banatzen ari gara, eta horietako gehienak oso txikiak dira. Hala ere, lurralde-jarraipena hain nabarmena da, ezen pentsatu behar baitugu familia-eredu nahiko desberdinak daudela, behintzat hausturei dagokienez, zona baten eta bestearen aldean. A priori, familia-eredu tradizionalen tesia aldez dezakegu; izan ere, eredu horretan, familiaren iraungarritasunaren muga kideen heriotzan baitatza, ezen ez haustura itunduetan edo ez-itunduetan.

Gogorarazi behar dugu ezen Gipuzkoa (eta batez ere, Gipuzkoako landa-zona) beti nabarmendu dela, familien batez besteko tamainari dagokionez, tamaina hori zertxobait handiagoa izan baita. Ezin dugu baztertu beste familia-ezaugarri batzuk ere desberdinak izatea; desberdintasun horiek atzematea eta aztertzea, dena dela, beste azterlan batzuetarako utziko dugu.